

## HIRIGINTZA FITXA. - 27 SO. HARTZABAL FUTBOL ZELAIA

DEBA ALDEA

### 1. HIRIGINTZA INFORMAZIOA. AURREKARIAK.

Bitxia bada ere, Hartzabalgo futbol zelaia, Hiri Antolaketako Arauetan lurzoru hiritarrezinean (45 zona) kokatua, ez zegoen kiroleko sistema orokor gisa definitua. Debako Udalak zelaia eraldatu beharra du.

#### 1.1. GARAPENeko PLANEAMENDUA.

1999ko eta 2002ko Hiri Antolaketako Arauetan behin betiko onartu ez ziren aldaketak proposatu ondoren, Ingurumen sailak belar artifizialeko zelai bat egitea erabaki zuen egun dagoen leku berean.

#### 1.2. HIRI EGITURA.

Deba ibaiko meandroen natur eremua landazabaleko nekazaritza eta abeltzaintzako esparru gisa definiturik dago Hezeguneen Lurralde Plan Sektorialean (behin betiko onarpena: 160/2004 Dekretua, uztailaren 27koa).

Aldagelen eraikin bat dago Kosta Legea urratzen duena, babes eremuaren barruan dagoelako (100 metro itsaso eta lehorraren arteko jabari publikora).

#### 1.3. ESPARRUAREN AZALERA. 15.939 m<sup>2</sup>

### 2. HIRIGINTZA ERREGIMENA.

2.1. LURZORUAREN SAILKAPENA : Hiritarrezina.

2.2. KALIFIKAZIO OROKORRA : Komunitatearen ekipamenduko zona: kirol ekipamendua (11. artikulua: G.3).

2.3. ALDERDIEN MUGAKETA : Hiri Antolaketako Arau hauen ondorioetarako, hirigintzako esku-hartze alderdi hau hirigintza alderdi bakar bat bezala eratu da, hiru azpizonez (aipatu Hiri Antolaketako Arauen Aldaketan xedatzen den moduan).  
1 HEA. Babes berezia handitzea..... 1.936 m<sup>2</sup>  
2 HEA. Kirol eremua..... 14.003 m<sup>2</sup>

2.4. ARAUDI APLIKAGARRIA : Lurraldearen Antolamendurako Zuzentarauak, Kosta Legea, Ubideak eta Errekak Babesteko Lurralde Plan Sektoriala.

#### 2.5. ITSASO ETA LEHORRAREN ARTEKO ZEDARRIPEN PUBLIKOA:

Kosta Zerbitzuak eskainitako 4.5 planoaren arabera.

### 3. PROPOSATUTAKO ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDE ETA HELBURUAK.

Dagoen aldagelen eraikina antolamenduz kanpo jartzea.

Ekipamendua berrantolatzea, belar artifizialeko futbol zelai berri bat sortuz.

3.1. KALIFIKAZIO XEHEKATUA. Komunitatearen ekipamenduko sistema orokorra: kirol ekipamendua. Hartzabal futbol zelaiak.

Beraz, komunitatearen ekipamenduko sistema orokorrerako jarraian doan kalifikazio xehekatuko erregimena ezarriko da: KIROL ZONA.

- A. KIROL ZONA. FUTBOL ZELAIA.
- B. BIDE SAREA ETA APARKALEKUAK.
- C. INSTALAZIO OSAGARRIAK.
- D. ESPAZIO LIBREAK. ERABILERA ANITZEKO BERDEGUNEAK.
- E. BABES BEREZIA.

#### 4. ORDENANTZA XEHEKATUAK.

##### 4.1. PROBETXAMENDU, ERAIKUNTZA, JABARI ETA ERABILERA BALDINTZAK.

**Eraikuntza.** Eraikuntzaren ezaugarriak dagokion oinarrizko eta gauzapeneko proiektuan finkatuko dira.

**Jabaria** Publikoa. Itsaso eta lehorren arteko jabari publikoa.

##### Erabilera/Zonakatzea

Futbol zelaia eta erabilera anitzeko gunea.....	8.381m2
Eraikuntza eta harmaila estaliak.....	840 m2
Aparkalekua eta bideak.....	2.258 m2
Erabilera anitzeko berdeguneak.....	2.524 m2
Berdegunea. Handitze berezia .....	1.936 m2
Kirol ekipamendua guztira .....	15.939 m2

Berariaz debekatutako erabilerak: Industrialak.  
Egoitzakoa.

##### 4.2. EKIPAMENDU ETA HIRITARTZE BALDINTZAK.

Dagozkion obra proiektuetan finkatuko dira.

##### 4.3. PLANEAMENDU ETA KUDEAKETA BALDINTZAK.

Eraikuntza eta obra osagarrien proiektua.

Babes zorpenaren eraginpeko eraikinek Kosta Legean, eta zehazki Laugarren Xedapen Iragankorrean, kasu bakoitzerako ezarritakoa bete beharko dute. Babes zorpeneko zonan, erabilerek Kosta Legearen 24 eta 25. artikuluetan ezarritakoa beteko dute.